

***SAN SEBASTIÁN TURISMO  
DONOSTIA TURISMOA, S.A.***

**2022KO ABENDUAREN 31N ITXITAKO URTEKO  
KONTU LABURTUAL ETA IKUSKARIEN TXOSTENA**

***SAN SEBASTIÁN TURISMO  
DONOSTIA TURISMOA, S.A.***

**KONTUEN IKUSKAPEN TXOSTENA  
2022KO ABENDUAREN 31N  
ITXITAKO URTEKO KONTU LABURTUAK**

## IKUSKARI INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKAPEN TXOSTENA

SAN SEBASTIÁN TURISMO / DONOSTIA TURISMOA Saren  
akziodun bakarrari:

### Iritzia

SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAREN (Sozietatea) urteko kontu laburtuak ikuskatu ditugu. Horietan biltzen dira 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria (guztiak laburtuak).

Gure iritiz, erantsita doazen urteko kontu laburtuek, alderdi esanguratsu guztietan, zehaztasunez jasotzen dituzte Sozietatearen 2022ko abenduaren 31ko ondarea eta finantza-egoera, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzak ere, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearen (memoriaren 2.a oharrean identifikatzen dena) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipioen eta -arauen arabera.

### Iritzia emateko oinarria

Kontu-ikuskapena egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskapenari buruzko araudiari jarraitu diegu. Arau horien arabera gure erantzukizunak aurrerago daude deskribatuta, *Urteko kontu laburtuen ikuskapenarekiko ikuskatzailearen erantzukizunak* atalean.

Sozietatearekiko independenteak gara, eta kontuak ikuskatzeko jarduera erregulatzen duen araudia ezarrita Espainian urteko kontu laburtuen ikuskapenari aplikagarriak zaizkion etika eskakizunei, independentziarena barne dela, jarraitu diegu. Alde horretatik, ez dugu kontuak ikuskatzea ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi erregulatzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jar zezakeen edo independentzia horretan eragina izan zezakeen inolako egoera edo inguruabarrik.

Gure ustez lortu dugun kontu-ikuskapeneko ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du gure iritzia emateko.

### Ikuskapenaren alderdirik garrantzitsuenak

Ikuskapenaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera urteko kontu laburtu hauen ikuskapenean oker materialak eragiteko arrisku esanguratsutzat hartu direnak dira. Arrisku horiek urteko kontu laburtuen gure ikuskapenaren testuinguruan hartu dira kontuan, bai eta horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku horiei buruzko iritzi bereizirik eman, beraz.

Zehaztu dugu ez dagoela ikuskapenean kontuan hartu den eta gure txostenean jaso beharko litzatekeen beste arrisku esanguratsurik.

### **Urteko kontu laburtuekiko administratzaileen erantzukizuna**

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, eta zehaztasunez jaso behar dituzte Sozietatearen ondarea, egoera finantzarioa eta emaitzak, sozietateari aplikatu behar zaion eta Espainian indarrean dagoen finantza-informazioaren esparru arauemaileari jarraituz. Era berean, administratzaileek arduratu behar dute urteko kontuak iruzur edo akats baten ondoriozko oker materialik gabe prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrolaz ere.

Urteko kontu laburtuak egitean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionatzen ari den enpresa gisa jarduten jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna baloratzea, eta, dagokionaren arabera, funtzionatzen ari den enpresarekin zerikusia duten gaiak azaldu behar ditu eta funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioari jarraitu behar dio, nola eta administratzaileek ez duten sozietatea likidatzeko edo eragiketak bertan behera uzteko asmorik, edo ez dagoen beste alternatiba errealista bat.

### **Urteko kontu laburtuen ikuskapenarekiko ikuskatzailearen erantzukizuna**

Gure helburuak dira urteko kontu laburtuetan, osotasunean hartuta, iruzur edo akats baten ondoriozko oker materialik ez dagoenaren arrazoizko segurtasuna izatea, eta gure iritzia jasotzen duen ikuskapen-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasuna izatea segurtasun maila handia izatea da, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen eta ikuskapenak arautzen dituen esparru arauemaileari jarraituz egindako ikuskapenak beti hautematen duenik oker material bat oker material hori dagoenean. Okerrak iruzur edo akats baten ondorio izan daitezke, eta oker materialtzat hartzen dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu laburtuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragiten dutela arrazoiz aurreikusten bada.

Espainian kontuak ikuskatzeko indarrean dagoen esparru arauemaileari jarraituz egindako ikuskapenaren baitan eszeptizismo-jarrera eta irizpide profesionala aplikatuz jardun dugu. Horrez gainera:

- Urteko kontu laburtuetan iruzur edo akats baten ondorio diren oker materialen arriskuak identifikatu eta baloratu ditugu, arrisku horiei erantzuteko ikuskapen-prozedurak diseinatu eta ezarri ditugu eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzur baten ondoriozko oker material bat ez hautemateko arriskua akats baten ondoriozkoa hautematekoa baino handiagoa da; izan ere iruzurrak kolusioa, faltsutzea, nahita egindako omisioa, nahita egindako adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihespena inplikatu ditzake.

- Ikuskapenerako garrantzizkoa den barne-kontrolari buruzko ezagupenak eskuratu ditugu egoeraren arabera egokiak diren ikuskapen-prozedurak diseinatzeko; eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia adierazteko helburuarekin.
- Ebaluatu ditugu aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna, kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa.
- Ondorioztatu behar genuen administratzaileek funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten, eta, lortutako ikuskapen-ebidentzian oinarrituta, funtzionatzen ari den enpresa gisa jarduten jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun materialik dagoen. Ondorioztatzen badugu ziurgabetasun materiala dagoela, gure ikuskapen-txostenean jaso beharko dugu urteko kontu laburtuetan honi buruz ematen den informazioa, edo, emandako informazioa egokia ez bada, iritzi ialdatua. Gure ondorioak, ikuskapen-txostenaren datara arte lortutako ikuskapen-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaerek edo baldintzek eragin dezakete Sozietateak funtzionatzen ari den enpresa izateari uztea.
- Ebaluatu ditugu urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia, emandako informazioa barne dela; bai eta urteko kontu laburtuek zehaztasunez jasotzen al dituzten transakzioak eta horien inguruko gertaerak.

Erakundeko administratzaileei jakinarazi dizkiegu, besteak beste, ikuskapenaren hedadura eta ikuskapena egiteko data, ikuskapenean egindako aurkikuntza esanguratsuak, bai eta ikuskapena egiten ari ginela barne-kontrollean hautemandako akatsak ere.

Administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontu laburtuen ikuskapenean adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, eta gure ustez, beraz, horiek dira arriskurik esanguratsuenak.

Arrisku horiek gure ikuskapen-txostenean deskribatzen ditugu, nola eta lege edo erregelamendu xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez duten.

**CONSULTORES Y AUDITORES ALTER 1990 SLP**  
(KAEOn izena emandako Sozietatea, S-0826 zk.)



Juan José Trullós Lancho (12.562 zk.)

2023ko martxoaren 28an

***SAN SEBASTIÁN TURISMO  
DONOSTIA TURISMOA, S.A.***

**URTEKO KONTU LABURTUAK  
2022KO ABENDUAK 31**



SAN SEBASTIÁN TURISMO S.A. - DONOSTIA TURISMOA, S.A.  
2022ko eta 2021eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE LABURTUAK

AKTIBOA	2022/12/31	2021/12/31
<b>A) AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>100.078,91</b>	<b>105.494,28</b>
I. Ibilgetu ukiezina	35.585,64	43.453,37
II. Ibilgetu materiala	40.379,60	43.607,24
III. Epe luzerako inbertsio finantzarioak	24.113,67	18.433,67
<b>B) AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>1.870.322,23</b>	<b>1.150.105,80</b>
II. Izakinak	269.417,81	268.355,14
III. Merkataritza zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	1.045.327,08	246.137,55
1. Salmenten eta zerbitzu prestazioen ondoriozko bezero	69.523,44	88.698,08
2. Bestelako zordunak	975.803,64	157.439,47
V.Epe laburrerako finantza-inbertsioak	-	-
VI. Epe laburrerako periodifikazioak	14.830,52	433,12
VII. Eskudirua eta beste aktibo likido balioideak	540.746,82	635.179,99
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.970.401,14</b>	<b>1.255.600,08</b>

PASIBOA	2022/12/31	2021/12/31
<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>979.379,17</b>	<b>259.812,56</b>
A-1) FUNTS PROPIOAK	170.478,07	169.847,23
I. Kapitala	84.141,69	84.141,69
1. Kapital eskrituratua	84.141,69	84.141,69
VI. Galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpenak	2.942.379,13	2.916.385,34
VII. Ekitaldiko emaitza	(2.856.042,75)	(2.830.679,80)
A-3) JASOTAKO DIRU LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	808.901,10	89.965,33
<b>B) PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>19.120,50</b>	<b>10.816,00</b>
II. Epe luzerako zorrak	19.120,50	10.816,00
1. Epe luzerako bestelako zorrak	19.120,50	10.816,00
III. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe luzerako zorrak	-	-
<b>C) PASIBO ARRUNTA</b>	<b>971.901,47</b>	<b>984.971,52</b>
II. Epe laburrerako probisioak	90.000,00	25.000
III. Epe laburrerako zorrak	28.525,65	14.716,04
1. Kreditu erakundeekiko zorrak	1.778,84	250,06
3. Epe laburrerako bestelako zorrak	26.746,81	14.465,98
IV. Taldeko enpresekiko epe laburrerako zorrak	-	-
V. Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	756.809,28	890.355,48
1. Hornitzaileak	143.519,86	539.809,29
2. Bestelako hartzekodunak	613.289,42	350.546,19
VI. Epe laburrerako periodifikazioak	96.566,54	54.900,00
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.970.401,14</b>	<b>1.255.600,08</b>

**SAN SEBASTIAN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA SA  
GALDU IRABAZIEN KONTU LABURTUAK  
2022ko ETA 2021ko ABENDUAREN 31n BUKATUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIENAK**

	2022/abe/31	2021/abe/31
<b>ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	530.067,94	250.357,61
4. Hornidurak	(28.095,94)	(52.145,84)
5. Beste ustiapen-sarrera batzuk	277.048,63	203.191,32
6. Langile-gastuak	(2.057.489,17)	(1.767.451,73)
7. Beste ustiapen-gastu batzuk	(1.570.775,56)	(1.460.850,44)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(130.348,87)	(30.844,27)
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen eta beste batzuen egozpena	125.064,23	27.063,55
13. Beste emaitza batzuk	(1.514,88)	-
<b>A) USTIAPEN EMAITZA</b>	<b>(2.856.043,62)</b>	<b>(2.830.679,80)</b>
17. Aldaketa-diferentziak	0,87	-
<b>B) EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>0,87</b>	<b>-</b>
<b>C) ZERGA AURREKO EMAITZA</b>	<b>(2.856.042,75)</b>	<b>(2.830.679,80)</b>
<b>D) EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>(2.856.042,75)</b>	<b>(2.830.679,80)</b>

**SAN SEBASTIAN TURISMO SA –  
DONOSTIA TURISMOA SA**

**2022ko EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA**

**SAN SEBASTIAN TURISMO SA –**  
**DONOSTIA TURISMOA SA**

**2022ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI**  
**DAGOKION MEMORIA**

**1.- SOZIEATEAREN JARDUERA.-**

SAN SEBASTIAN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SA sozietatea (aurrerantzean "Sozietatea edo TURISMOA"), sozietate anonimo bat da, eta, Sozietatearen estatutuen arabera, bere helburua "Donostiaren lurralde-esparruan turismoaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatzea, garatzea eta indartzea" da.

Enpresaren egoitza soziala Donostiako Boulevardeko 8. zenbakian dago.

San Sebastián Turismo – Donostia Turismoa SA enpresaren identifikazio fiskaleko zenbakia A-20188884 da.

Sozietatea Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1479 liburukian, 79 folioan, 9471 orrian.

Sozietateak, garatzen dituen jarduerak direla eta, ez du ingurumen-izaerako erantzukizun, gastu, aktibo, hornikuntza eta kontingentziarik, ondareari, finantza-egoerari eta horren emaitzei dagokienez esanguratsua izan daitekeenik. Ondorioz, urteko kontuen memoria honetan ez da sartu ingurumen-gaiei buruzko xehetasunik.

**2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK.-**

**a) Irudi zehatza**

Honekin batera doazen urteko kontuak Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik atera dira, eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako eta 1159/2010 Errege Dekretuaren eta 602/2016 Errege Dekretuaren bidez aldatutako Kontabilitate Plan Orokorraren eta kontabilitate-arloko derrigorrezko xedapenen arabera aurkeztu dira, eta, ondorioz, Sozietatearen ekitaldiko

ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza ematen dute.

2021eko ekitaldiari zegozkion urteko kontuak 2022ko maiatzaren 26ko Sozietatearen Batzar Nagusiak onartu zituen.

2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak oraindik ez baditu ere onartu Akziodunen Batzar Nagusiak, Sozietatearen administratzaileek ez dute uste garrantzizko aldaketarik egingo denik onarpen horren ondorioz.

Ez dago aparteko arrazoirik, irudi fidela erakusteko, kontabilitatearen esparruko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

**b) Derrigorrezkoak ez diren arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak**

Honekin batera doazen urteko kontuak prestatzeko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta -irizpideak Merkataritza Kodean, indarrean dagoen Kapital Sozietateen Legean eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean eta gerora egindako aldaketetan jasotakoak dira. Urteko kontu laburtu hauek prestatzean ez da aplikatu derrigorrezkoa ez den eta eragin esanguratsua izan zezakeen printzipiorik.

**c) Ziurgabetasunaren balorazioaren eta estimazioaren alderdi kritikoak**

Sozietateak funtzionatzen ari den enpresaren printzipioan oinarrituta prestatu ditu bere finantzen egoera-orriak, eta ez dago inolako arrisku esanguratsurik hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa nabarmenik izango dela pentsatzeko.

**d) Informazioa alderatzea**

Ez dago 2022ko urteko kontuak aurreko ekitaldikoekin alderatzea eragozten duen aparteko arrazoirik.

**e) Urteko kontu laburtuak**

Sozietateak betetzen ditu Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 257. eta 258. artikuluetan eskatutako baldintzak, eta, ondorioz, laburtuta aurkez ditzake balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiko aldaketen egoera-orria eta memoria.

**f) Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak**

Balantzeko eta galdu-irabazien kontuko kontu-sail jakin batzuk elkartuta aurkezten dira errazago uler daitezen, baina, adierazgarria den neurrian, informazioa banatuta sartu da memoriako dagokien oharretan.

**g) Kontabilitate-irizpideen aldaketa**

2022ko ekitaldian ez da kontabilitate-irizpideen aldaketa nabarmenik izan.

**h) Moneta funtzionala**

Urteko kontu hauek eurotan aurkeztu dira, euroa baita Sozietateren ingurune ekonomikoan erabiltzen den moneta.

**i) Informazioaren erantzukizuna**

Urteko kontu hauetako informazioa Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren erantzukizuna da.

**j) Akatsen zuzenketa**

Honekin batera doazen urteko kontuak prestatzean ez da hauteman 2022ko urteko kontuetako zenbatekoak doitzea eragin duen akats nabarmenik.

**3.- EMAITZEN BANAKETA.-**

Hau da administrariak Sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzeko aurkeztuko duten 2022ko ekitaldiko emaitzen banaketa-proposamena, eurotan adierazita:

**Memoria  
2022ko abenduak 31**

<b>Banaketa oinarria</b>	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Galdu-irabazien kontuko saldoa	(2.856.042,75)	(2.830.679,80)
Soberakina	-	-
Borondatezko erreserbak	-	-
Erabilera libreko bestelako erreserbak	-	-
<b>Guztira</b>	<b>(2.856.042,75)</b>	<b>(2.830.679,80)</b>

<b>Aplikazioa</b>	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Nahitaezko erreserbara	-	-
Erreserba berezietara	-	-
Borondatezko erreserbetara	-	-
Dibidenduetara	-	-
Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera	-	-
Aurreko ekitaldietako galeretara	(2.856.042,75)	(2.830.679,80)
<b>Guztira</b>	<b>(2.856.042,75)</b>	<b>(2.830.679,80)</b>

**4.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK.-**

Hauek dira kontu-sail esanguratsuenei aplikatutako kontabilitate-irizpideak:

**a) Ibilgetu ukiezina**

Aktibo ukiezinak hasiera batean bere erosketa-kostuaren arabera aitortzen dira, eta, ondoren, bere kostuaren arabera, dagokion amortizazio metatua eta, hala badagokio, narriaduraren ondorioz izandako galera kenduta. Balio-bizitza zehaztugabea duten aktibo ukiezinak ez dira amortizatzen, baina, urtean behin gutxienez, narriadura-testa egiten zaie.

Sozietateak kontabilitatean aitortuko du narriadura dela eta aktibo horien erregistratutako balioan izan daitekeen galera oro. Horren kontrapartida gisa galdu-irabazien kontuko "Narriatzearen ondoriozko galera garbiak" epigrafea erabiltzen da. Narriadura dela eta aktibo horien galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan narriadura dela eta izandako galeren berreskuratzeak aitortzeko irizpideak aktibo materialen kasuan aplikatutakoen antzekoak dira. Ekitaldi hauetan ez da aitortu aktibo ukiezin hauek eragindako "Narriatzearen ondoriozko galera garbirik".

Ez dago balio-bizitza zehaztugabeko ibilgetu ukiezinik.

## b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala osatzen duten ondasunak erosketa-kostuaren arabera baloratzen dira, dagokion amortizazio metatua eta narriadura dela eta izandako galerak kenduta. Kostuan, elementu bakoitza erostean ordaindutako prezioaz gainera, eraikuntza-aldian sortutako finantza-gastuak ere sartzen dira, aktiboen eraikuntzari zuzenean egotz dakizkiokeenak erabiltzeko moduan egoteko denbora bat behar badute. Azken ekitaldietan ez da zenbatekorik aktibatu kontzeptu honengatik.

Elementu osoak ordezkatzek edo berritzeak eta handitzeak, modernizazioek edo hobekuntzek eragindako gastuak, ondasunaren balio-bizitza, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa handitzen dutenak, ibilgetu materialaren balio handiago gisa kontabilizatzen dira, eta, ondorioz, ordeztutako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Kontserbazio-, mantentze- eta konponketa-gastuak, aldizkakoak, horiek egiten diren urteko emaitzei kostu gisa egotzen zaizkie, sortzapenaren irizpideari jarraituz.

Sozietateak ez du bere aktibo-ondasunei dagokien eraisteko, kentzeko edo birgaitzeko konpromisorik. Hori dela eta aktiboetan ez da etorkizuneko betebeharrak horiek ordaintzeko baliorik kontabilizatu.

Ibilgetuaren amortizazioa metodo lineala jarraituz egiten da.

Aktibo bat besterentzeagatik edo kentzeagatik izandako irabazia edo galera salmentaren irabaziaren eta aktiboaren liburu-etako zenbatekoen arteko aldea izaten da, eta Emaitza Kontuan jasotzen da.

## c) Aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak

### Aktibo Finantzarioak

Aktibo finantzarioak eskuratzean Egoera Balantzean kontabilizatzen dira, eta hasieran arrazoizko balioa, eragiketaren kostuak barne hartuta, oro har.

Aktibo finantzarioak, baloratzeko, kategoria hauetan sailkatzen dira:

- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Aktibo finantzario bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatuta batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta aktibo finantzarioaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak sortzen dituzte, printzipalaren kobrantzak eta egiteke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez direnak.

Egiteke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko printzipala eta interesa baino ez duten kontratuzko diru-fluxuak mailegu arrunt edo erkide izaera duen akordio baten berezkoak dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko kredituak (kobrantza geroratua duen enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren finantza-aktiboak), eta eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak, berriz, enpresak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozen eta, ondare-tresnak edo deribatuak izan gabe, merkataritza-jatorririk ez duten finantza-aktiboak, horien kobrantzak zenbateko jakin edo erabakigarrikoak direnean). Hau da, kategoria horren barruan egongo lirateke kobratu beharreko maileguak eta kontuak, bai eta zorra adierazten duten baloreak ere, mugaeguna finkatuta dutenak, zenbateko jakin edo erabakigarriko kobrantzak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta sozietateak mugaegunera arte mantentzeko asmoa eta gaitasuna dituenak.

Hasieran, arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketengatiko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnei buruz eskatutako ordainketak, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Ondorengo balorazioa kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten kredituak, baldin eta, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalean baloratzen badira, zenbateko horretan baloratuko dira, narriatu ez badira behintzat. Aktibo finantzario baten kontratuko diru-fluxuak jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, balio-narriaduragatiko galera kontabilizatu behar den aztertuko du enpresak.

Sozietateak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu, kobratzeko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dauden liburuetak balioaren artean dagoen aldeagatik. Ekitaldi-itxieran, gutxienez, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago kategorian honetan sartutako aktibo finantzario baten edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten aktibo finantzarioen talde baten balioa narriatu egin dela hasierako aintzatespenaren ondoren gertatu den gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta horrek etorkizuneko diru-fluxu zenbatetsiak murriztea edo atzeratzea eragiten duela, zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz.

Aktibo finantzario horien balio-narriaduragatiko galera honako hau da: Etorkizuneko efektiboa, baita, hala badagokio, berme errealak eta pertsonalak gauzatzetik datozenak ere, hasieran aintzatesteko unean kalkulaturako interes-tasa efektiboari kenduta.

Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta itzulketak, galera horren zenbatekoa ondorengo gertaera batekin lotutako arrazoiengatik murrizten denean, gastu edo sarrera gisa kontabilizatuko dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketak aktiboaren kontabilitate-balioa du mugatzat, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz lehengoratzeko-datan aitortuta egongo litzatekeena.

- Kostuko finantza-aktiboak

Kategoria horren barruan sartzen dira, besteak beste, taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak, bai eta ondare-tresnetan egindako gainerako inbertsioak ere, baldin eta arrazoizko balioa ezin bada zehaztu merkatu aktibo batean tresna berdinerako kotizatutako prezio bati erreferentzia eginez, edo ezin bada horren estimazio fidagarririk lortu.

Kategoria honetan sartuko dira, halaber, interesak kontingenteak dituzten partaidetza-maileguak eta galdu-irabazien kontuko aldaketen bidez arrazoizko balio-zorroan sailkatu beharreko beste edozein aktibo finantzario, arrazoizko balioaren estimazio fidagarririk lortu ezin denean.

Hasieran kostuaren arabera baloratzen dira, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak.

Ondorengo balorazioa kostuaren arabera egiten da, narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbateko metatua kenduta, hala badagokio.

Ekitaldi-itxieran, gutxienez, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago inbertsio baten liburu-balioa ezin dela berreskuratu.

Sozietateak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu liburu-balioaren eta berreskura daitekeen zenbatekoaren artean dagoen diferentziagatik, hau da, arrazoizko balioaren ken salmenta-kostuen eta inbertsioatik eratorritako etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko zenbateko handiena. Ondare-tresnen kasuan, enpresa partaidetuak egindako dibidenduen banaketaren eta inbertsioaren inorenganatzearen edo kontuetan baja ematearen ondorioz jasotzea espero direnen estimazioaren bidez kalkulatzeko dira, edo enpresa partaidetuak diru-fluxuetan izango duen partaidetza zenbatetsiz, ohiko jardueretatik, besterentzetik edo kontuetan baja ematek datozenak.

Ondare-tresnetan egindako inbertsioen zenbateko berreskuragarriak ebidentzia hoberik izan ezean, mota horretako aktiboen narriaduragatik galeraren estimazioa partaidetutako erakundearen ondare garbiaren eta balioespen-datan dauden gainbalio tazituen arabera kalkulatzeko da, zerga-eragin garbiaren arabera. Balio hori zehazteko, eta betiere enpresa partaidetuak beste batean inbertitu badu, Merkataritza Kodearen irizpideak eta hura garatzeko arauak aplikatuz egindako urteko kontu bateratuetan sartutako ondare garbia hartzen da kontuan.

Balio-narriaduragatik egindako balio-zuzenketen aintzatespena eta, hala badagokio, itzulketa, gastu edo sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Balio-narriaduraren lehengoratzearen muga izango da itzultze-datan kontabilizatutako inbertsioaren liburu-balioa, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz.

#### Finantza-aktiboen baja

Sozietateak baja ematen die aktibo finantzarioei dagokion aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko eskubideak amaitzen direnean edo utzi direnean eta bere jabetzari dagozkion arriskuak eta mozkinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, oro har, kaudimengabezia-arriskuak transmititu badira gertatzen dela ulertzen da. Eta berandutzen da.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak, gehi zuzenean ondare garbian kontabilizatu den edozein zenbateko metaturen arteko diferentziak, aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta hori aktiboaren ekitaldiko emaitzaren parte da.

Aitzitik, sozietateak ez die baja ematen aktibo finantzarioei, eta pasibo finantzario bat aitortzen du, jasotako kontraprestazioaren zenbateko berekoa, bere jabetzari dagozkion arriskuak eta mozkinak funtsean atxikitzen diren aktibo finantzarioen lagapenetan.

#### Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak

Honekin batera doan egoera-balantzearen epigrafe honetan, eskudirua kutxan eta bankuetan erregistratzen da, ageriko gordailuak eta likidezia handiko hiru hilabete baino gutxiagoko epemuga duten epe laburreko beste inbertsio batzuk, kutxan berehala egin daitezkeenak eta beren balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

#### Ondare garbia

Ondare-tresnak taldearen ondare garbian geratzen den hondar-partaidetza adierazten du, pasibo guztiak kendu ostean.

#### Kapital soziala

Akzio arruntak kapital gisa sailkatzen dira. Ez dago bestelako akziorik.

Akzio berriak jaulkitzeari edo erosteari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak horren zenbatekoaren kenkari gisa kontabilizatuko dira ondare garbian.

Sozietateak bere akzioak eskuratu edo salduko balitu, horrekin jasotako edo ordaindutako zenbatekoa zuzenean ondarean aitortuko da. Ekitaldiko emaitzan ez da norbere ondare-tresnak erosteak, saltzeak, jaulkitzeak edo amortizatzeak eragindako galerarik edo irabazirik aitortzen.

#### Akzio propioak

Ondare garbiaren murrizketa gisa aurkezten dira. Ez da inolako emaitzarik aitortzen horien erosketan, salmentan, jaulkitzean edo kitatzean.

#### Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak itundutako kontratu-akordioaren edukiaren arabera eta funts ekonomikoa kontuan hartuta sailkatzen dira.

Sozietateak mantendutako pasibo finantzario nagusiak mugaeguna duten pasiboak dira eta bere kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sozietateak ez du negoziatzeko mantendutako pasibo finantzariorik, ez eta arrazoizko balioaren arabera kontabilizaturik ere estaldura-tresnetatik kanpora.

Pasibo finantzarioak, baloratzeko, kategoria hauetan sailkatzen dira:

- Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Kategoria honen barruan pasibo finantzario guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko zorrak eta eragiketa ez-komertzialengatiko zorrak.

Mailegu arrunt edo komun baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategoria honetan sartuko dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

Hasieran arrazoizko balioaren arabera balioesten dira; kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuen arabera doituta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatiko zorrak, bai eta partaidetzen gainean hirugarrenek eskatutako ordainketak ere, horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero baita. Balio nominala, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Ondorengo balorazioa kostu amortizatuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten zorrak, baldin eta, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalean baloratzen badira, zenbateko horretan balioesten jarraituko dira.

#### Emandako eta jasotako fidantzak

Betebehar jakin batzuen berme gisa eratutako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan balioesten dira, arrazoizko balioaren alde handirik gabe.

Errentamendu operatiboen edo zerbitzuak ematearen bidez emandako edo jasotako fidantzetan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea errentamenduaren edo zerbitzua ematearen ordainketa edo kobrantza aurreratutzat hartzen da, eta errentamenduaren aldian edo zerbitzua ematen den aldian galdu-irabazien kontura egozten da, salmentengatiko eta zerbitzuak emateagatiko sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatestean, hitzemandako gutxieneko kontratu-epea hartzen da gerakintzat, eta epe horretan ezin izango da fidantzen zenbatekoa itzuli, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan hartu gabe.

Fidantza epe laburrekoa denean, ez da beharrezkoa diru-fluxuen deskontua egitea, haren eragina esanguratsua ez bada.

#### d) Izakinak

Izakinak erosketa-prezioaren, ekoizpen-kostuaren edo balio garbi bihurtzeko txikienaren arabera baloratzen dira. Kostuan sartuta daude FIFOra hurbiltzen den kostu estandarren arabera baloratutako materialak, hirugarrenekin egindako lanak eta zuzenean produktuari egotz dakizkiokeen kostuak, bai eta produktuei zeharka egotz dakizkiekeen kostuei dagokien arrazoizko zatia ere.

Balio bihurtzeko garbia salmentako prezioaren estimazioa da, bukatzeko estimatutako kostu guztiak eta merkaturatzeko, salmentako eta banaketako prozesuetan egingo diren kostuak kenduta.

#### e) Atzerriko monetako transakzioak

Atzerriko monetan hartutako eta kitatu gabeko zordunen, hartzekodunen, bezeroen eta hornitzaileen saldoak eurotan kontabilizatzen ditu kontrabalioak, ekitaldiaren itxierako kotizazioaren arabera, nola eta, garrantzi erlatiboaren printzipioaren arabera, ez duen merezi kontabilitateko balioa aldatzea, edo truke-asegurua dagoen.

Kontrabalioa eurotan ondarean sartzeko unean. Eragiketa likidatzen den eguneko kostu erreala aplikatzen da.

Positiboak badira, zorra kitatzen ez den bitartean, 768 Kontuan jasotzen da (Truke Alde Positiboak).

Negatiboak badira, zorra kitatzen ez den bitartean, 668 Kontuan jasotzen da (Truke Alde Negatiboak).

#### f) Sozietateen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergaren gastuan edo sarreran sartzen da, alde batetik, **zerga korrontearen** ondoriozko gastuari edo sarrerari dagokion zatia eta, bestetik, **gastu edo sarrera geroratuari** dagokiona.

**Zerga korrontea** Sozietateak ekitaldi bateko mozkinen gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaintzen duen kopurua da. Zergaren kuotako dedukzioek eta beste abantaila fiskal batzuek, atxikipenak eta konturako ordainketak kenduta, eta aurreko ekitaldietakoak diren eta berez ekitaldi honetan aplikatu diren galera fiskal konpentsagarriek zerga korrontea jaistea eragiten dute.

**Zerga geroratuaren ondoriozko gastua edo sarrera** zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak aitortzeari eta kitatzeari dagozkie. Hemen sartzen dira etorkizunean ordain edo berreskura daitezkeen zenbateko gisa definitutako denbora-diferentziak, eta aktiboek eta pasiboek liburuetan duten balioaren eta beren zerga-oinarriaren arteko diferentziak, bai eta konpentsatzeko dauden zerga ezargarri negatiboak eta ikuspegi fiskaletik aplikatu gabeko zerga-kenkarien ondoriozko kredituak ere. Zenbateko horiek denbora-diferentziari edo dagokion kredituari aktibo eta pasibo horiek berreskuratzeko edo likidatzeko aurreikusten den karga-tasa aplikatuz erregistratzen dira.

Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak aitortzen dira zergapeko denbora-diferentzia guztietarako, salbuesten dira merkataritza-funts baten hasierako aitorpenetik edo ez zerga-emaizan ez kontabilitatean ondoriorik izan ez duen eragiketa batean beste aktibo edo pasibo batzuen hasierako aitorpenetik eratorritakoak, eta negozio-konbinazio ez direnak; bai eta mendeko enpresa, elkartu eta negozio bateratuetako inbertsioei atxikitakoak ere. Sozietateak kontrolatu dezakeenean noiz itzuliko diren eta posible denean aurreikus daitezkeen etorkizunean ez itzultzea.

Bestalde, zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak bakar-bakarrik aitortuko dira posible denean Sozietateak etorkizunean horiek gauzatu ahal izateko behar adina zerga-irabazi izatea.

Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak, ondare-kontuetako zuzeneko kargu- edo ordainketa-eragiketek eragindakoak, ondare garbiko kontrapartida gisa kontabilizatzen dira. Kontabilitatea ixten den bakoitzean berriz kontsideratzen dira erregistratutako zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak, eta dagozkion zuzenketak egiten zaizkie etorkizunean berreskuratzeari buruz zalantzak dauden neurrian. Kontabilitatea ixten den bakoitzean balantzean erregistratu gabeko zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak ebaluatzen dira, eta irabaziekin berreskuratuko direla posible den neurrian aitortzen dira.

## **g) Sarreraren eta gastuen kontabilizazioa**

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiek ordezkatzeko dituzten ondasunen eta zerbitzuen egiazko mugimendua gertatzen denean, horien ondoriozko moneta-korronteak edo finantza-korronteak edozein unetan gertatzen direlarik ere. Sarrera horiek jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, deskontuak eta zergak kenduta.

**Salmenten ondoriozko sarrerak** saldutako ondasunaren berezko arrisku eta irabazi nagusiak erosleari eskualdatzen zaizkionean aitortzen dira, ondasun horren gaineko gestio korrontea mantendu

gabe eta ondasunaren gaineko egiazko kontrola atxiki gabe, eta eragiketa horiei ezartzen zaizkien zergeri dagozkien zenbatekoak sartu gabe; eragiketaren balio txikiago gisa hartzen dira deskontu guztiak, fakturan sartuta egon ala ez.

**Zerbitzuak eskaintzearen ondoriozko sarrerei** dagokienez, balantzearen datan prestazioa zenbateraino dagoen eginda kontuan hartuta aitortzen dira, eta transakzioaren emaitza fidagarritasunez kalkula badaiteke bakarrik.

**Aktibo finantzarioetatik jasotako interesak** interes efektiboaren metodoa eta dibidenduak erabiliz aitortzen dira, horiek jasotzeko akziodunaren eskubidea aitortzen denean. Nolanahi ere, eskuratu ondoren sortutako aktibo finantzarioen interesak eta dibidenduak sarrera gisa aitortzen dira galdu-irabazien kontuan.

#### **h) Hornidurak eta kontingentziak**

Uneko auzi, erreklamazio, abal, berme, kalte-ordain eta obligazioetatik eratorritako edozein eratako erantzukizun posibleak edo ziurrak, oraindik zenbatekoa zehaztu gabe dutenak, ekitaldiko emaitzen kaltetan hornitzen dira, bere zenbatekoaren kalkuluaren arabera.

#### **i) Pentsio eta antzekoetarako hornidurak**

Enpresako langileen kontratu- edo lege-betebeharrei erantzuteko behar diren funtsak, erretiroa edo behar sozialak -alarguntasuna, umezurztasuna, eta abar- direla eta, kalkulu aktuariaren arabera egindako estimazioak kontuan hartuta kontabilizatuko dira.

#### **j) Kaleratzeagatiko kalte-ordainak**

Indarrean dagoen lan-legediaren arabera, Espainiako erakundeek kalte-ordaina eman behar diete arrazoirik gabe kaleratzen diren langileei. Ez dago kontzeptu honengatik hornidura bat kontabilizatzeko arrazoi objektiborik.

#### **k) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak**

Honakoak dira diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak kontabilizatzeko erabilitako irizpideak:

Itzuli behar ez diren diru-laguntza, dohaintza eta legatuak:

Emandako zenbatekoaren edo ondasunaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, dirua izan ala ez, eta emaitzetan egozten dira, diruz lagundutako elementuei buruz aldi horretan egindako amortizazioaren horniduraren proportzioan, edo, dagokionean,

besterentzea edo narriaduragatik zuzenketa baloratiboa egiten denean, bazkideengandik edo jabeengandik jasotakoak direnean izan ezik, horiek zuzenean funts propioetan erregistratzen baitira eta ez sarrera gisa.

Itzultzeko diru-laguntzak:

Itzultzeko diru-laguntzen izaera dutenean pasibo gisa kontabilizatzen dira.

Ustiapenerako diru-laguntzak:

Emaitzetara ordaintzen dira ematen diren unean, etorkizuneko ekitaldiko ustiapen defizita finantzatzera bideratzen direnean izan ezik, orduan ekitaldi horietan egotziko baitira. Gastu jakin batzuk finantzatzeko ematen badira, finantzatutako gastu horiek sortu ahala egotziko dira.

Bestalde, bazkideengandik edo jabeengandik jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak ez dira sarrerak, eta zuzenean funts propioetan erregistratu behar dira baldin eta itzultzekoak ez badira.

## **1) Lotutako aldeen arteko transakzioak**

Urteko kontuak aurkezteari begira, enpresa edo erakunde bat taldeko partaide dela ulertuko da bien artean kontrol-harremana dagoenean, zuzena nahiz zeharkakoa izan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan sozietate-taldeentzat aurreikusitakoaren antzerakoa, hain zuzen ere, edo enpresak edozein bitarteko dela medio pertsona juridiko batek edo batera diharduten pertsona juridiko batzuek kontrolatzen dituztenean, edo akordioak edo estatutu-klausulak direla medio zuzendaritza bakarraren mende daudenean. Alde horretatik, Donostiako Udala taldeko enpresatzat hartuko da.

## **5.- IBILGETU UKIEZINA.-**

Honako hau izan da 2022ko eta 2021eko ekitaldietan egoera-balantzearen epigrafe honetan izandako mugimendua, eurotan adierazita:

**Memoria  
2022ko abenduak 31**

**2022ko ekitaldia:**

<b>Kostua</b>	Hasierako saldoa	Sarrerak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	289.683,80	63.953,34	-	-	353.637,14
<b>Guztira</b>	<b>289.683,80</b>	<b>63.953,34</b>	-	-	<b>353.637,14</b>

<b>Amortizazioa</b>	Hasierako saldoa	Hornidurak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	(246.230,43)	(71.821,07)	-	-	(318.051,50)
<b>Guztira</b>	<b>(246.230,43)</b>	<b>(71.821,07)</b>	-	-	<b>(318.051,50)</b>

<b>Ibilgetu ukiezina guztira</b>	<b>Hasierako saldoa</b>	<b>Amaierako saldoa</b>
Kostua	289.683,80	353.637,14
Amortizazioa	(246.230,43)	(318.051,50)
Narriadurak	-	-
<b>Guztizko garbia</b>	<b>43.453,37</b>	<b>35.585,64</b>

2022an ez da narriadurarik izan ibilgetu ukiezinaren kontu-sail bakar batean.

Sozietateak ez du balio-bizitza zehaztu gabeko ibilgetu ukiezinik.

**2021eko ekitaldia:**

<b>Kostua</b>	Hasierako saldoa	Sarrerak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	270.684,24	17.104,56	1.895,00	-	289.683,80
<b>Guztira</b>	<b>270.684,24</b>	<b>17.104,56</b>	<b>1.895,00</b>	-	<b>289.683,80</b>

<b>Amortizazioa</b>	Hasierako saldoa	Hornidurak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	(230.456,90)	(15.773,53)	-	-	(246.230,43)
<b>Guztira</b>	<b>(230.456,90)</b>	<b>(15.773,53)</b>	-	-	<b>(246.230,43)</b>

**Memoria  
2022ko abenduak 31**

<b>Ibilgetu ukiezina guztira</b>	<b>Hasierako saldoa</b>	<b>Amaierako saldoa</b>
Kostua	270.684,24	289.683,80
Amortizazioa	(230.456,90)	(246.230,43)
Narriadurak	-	-
<b>Guztizko garbia</b>	<b>40.227,34</b>	<b>43.453,37</b>

2021ean ez da narriadurarik izan ibilgetu ukiezinaren kontu-sail bakar batean.

Sozietateak ez du balio-bizitza zehaztu gabeko ibilgetu ukiezinik.

**6.- IBILGETU MATERIALA.-**

2022ko eta 2021eko ekitaldietako ibilgetu materialaren eta dagozkion amortizazio metatuen kontuetan honako mugimendu hau izan da, eurotan adierazita:

**2022ko ekitaldia:**

<b>Kostua</b>	<b>Hasierako saldoa</b>	<b>Sarrerak</b>	<b>Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik</b>	<b>Irteerak, bajak edo murrizketak</b>	<b>Amaierako saldoa</b>
Lursailak eta eraikuntzak	627.969,80	-	-	-	627.969,80
Instalazio teknikoak	174.673,10	-	-	-	174.673,10
Altzariak	117.162,06	-	-	-	117.162,06
Informazio-prozesuetako ekipoak	165.757,61	12.300,68	-	-	178.058,29
Bestelako instalazioak	28.115,45	40.685,96	-	-	68.801,41
Bestelako Ibilgetu materiala:	15.987,97	2.313,52	-	-	18.301,49
Obrak martxan	-	-	-	-	-
<b>Kostua guztira</b>	<b>1.129.665,99</b>	<b>55.300,16</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>1.184.966,15</b>

**Memoria  
2022ko abenduak 31**

<b>Amortizazioak</b>	Hasierako saldoa	Hornidurak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaierako saldoa
Lursailak eta eraikuntzak	(626.467,13)	(54,48)	-	-	(626.521,61)
Instalazio teknikoak	(170.998,01)	(2.212,59)	-	-	(173.210,60)
Altzariak	(114.796,15)	(1.208,76)	-	-	(116.004,91)
Informazio-prozesuetako ekipoak	(145.816,89)	(10.044,40)	-	-	(155.861,29)
Bestelako instalazioak	(21.305,61)	(42.290,29)	-	-	(63.595,90)
Bestelako Ibilgetu materiala	(6.674,96)	(2.717,28)	-	-	(9.392,24)
Obrak martxan	-	-	-	-	-
<b>Kostua guztira</b>	<b>(1.086.058,75)</b>	<b>(58.527,80)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>1.144.586,55)</b>

<b>Ibilgetu materiala guztira</b>	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa
Kostua	1.129.665,99	1.184.966,15
Amortizazioak	(1.086.058,75)	(1.144.586,55)
Narriadurak	-	-
<b>Gutzizko garbia</b>	<b>43.607,24</b>	<b>40.379,60</b>

**2021eko ekitaldia:**

<b>Kostua</b>	Hasierako saldoa	Sarrerak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaierako saldoa
Lursailak eta eraikuntzak	627.969,80	-	-	-	627.969,80
Instalazio teknikoak	174.673,10	-	-	-	174.673,10
Altzariak	117.162,06	-	-	-	117.162,06
Informazio-prozesuetako ekipoak	152.703,06	14.949,55	(1.895,00)	-	165.757,61
Bestelako instalazioak	21.762,95	6.352,50	-	-	28.115,45
Bestelako Ibilgetu materiala:	10.188,93	5.799,04	-	-	15.987,97
Obrak martxan	-	-	-	-	-
<b>Kostua guztira</b>	<b>1.104.459,90</b>	<b>27.101,09</b>	<b>(1.895,00)</b>	<b>-</b>	<b>1.129.665,99</b>

**Memoria  
2022ko abenduak 31**

<b>Amortizazioak</b>	Hasierako saldoa	Hornidurak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaierako saldoa
Lursailak eta eraikuntzak	(626.412,65)	(54,48)	-	-	(626.467,13)
Instalazio teknikoak	(168.785,45)	(2.212,56)	-	-	(170.998,01)
Altzariak	(113.587,36)	(1.208,79)	-	-	(114.796,15)
Informazio-prozesuetako ekipoa	(137.414,52)	(8.402,37)	-	-	(145.816,89)
Bestelako instalazioak	(19.799,61)	(1.506,00)	-	-	(21.305,61)
Bestelako Ibilgetu materiala:	(4.988,42)	(1.686,54)	-	-	(6.674,96)
Obrak martxan	-	-	-	-	-
<b>Kostua guztira</b>	<b>(1.070.988,01)</b>	<b>(15.070,74)</b>	-	-	<b>(1.086.058,75)</b>

<b>Ibilgetu materiala guztira</b>	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa
Kostua	1.104.459,90	1.129.665,99
Amortizazioak	(1.070.988,01)	(1.086.058,75)
Narriadurak	-	-
<b>Gutzizko garbia</b>	<b>33.471,89</b>	<b>43.607,24</b>

**7.- FINANTZA AKTIBOAK.-**

**a) Finantza-aktiboak epe luzera**

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-aktiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe luzeko honako saldo hauek mantentzen ditu 2022ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

<b>Motak</b>	<b>Finantza-tresnak epe luzera</b>							
	<b>Ondare-tresnak</b>		<b>Zorraren balio adierazgarriak</b>		<b>Kredituak, eratorriak eta bestelakoak</b>		<b>Guztira</b>	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
<b>Kategoriak</b>								
<b>Kostuko finantza-aktiboak</b>	-	-	-	-	24.113,67	18.433,67	24.113,67	18.433,67
<b>Guztira</b>	-	-	-	-	<b>24.113,67</b>	<b>18.433,67</b>	<b>24.113,67</b>	<b>18.433,67</b>

**b) Finantza-aktiboak epe laburrera**

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-aktiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe laburreko honako saldo hauek mantentzen ditu 2022ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

Motak  Kategoriak	Finantza-tresnak epe laburrera							
	Ondare-tresnak		Zorraren balio adierazgarriak		Kredituak, eratorriak eta bestelakoak		Guztira	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
<b>Kostu amortizatuko finantza-aktiboak</b>	-	-	-	-	70.733,44	93.444,32	70.733,44	93.444,32
<b>Guztira</b>	-	-	-	-	<b>70.733,44</b>	<b>93.444,32</b>	<b>70.733,44</b>	<b>93.444,32</b>

**8.- FINANTZA PASIBOAK.-**

**a) Finantza-pasiboak epe luzera**

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-pasiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe luzeko honako saldo hauek mantentzen ditu 2022ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

Motak  Kategoriak	Finantza-tresnak epe luzera							
	Zorrak kreditu-erakundeekin eta finantza-errentamendua		Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak		Eratorriak eta bestelakoak		Guztira	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
<b>Kostuko-finantza pasiboak</b>	-	-	-	-	19.120,50	10.816,00	19.120,50	10.816,00
<b>Zorrak taldeko enpresekin eta bazkideekin</b>	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	-	-	-	-	<b>19.120,50</b>	<b>10.816,00</b>	<b>19.120,50</b>	<b>10.816,00</b>

**b) Finantza-pasiboak epe laburrera**

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-pasiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe laburreko honako saldo hauek mantentzen ditu 2022ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

Motak  Kategoriak	Finantza-tresnak epe laburrera							
	Zorrak kreditu-erakundeekin eta finantza-errentamendua		Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak		Eratorkiak eta bestelakoak		Guztira	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
<b>Kostu amortizatuko finantza-pasiboak</b>	1.778,84	250,06	-	-	584.660,85	745.151,45	586.439,69	745.401,51
<b>Zorrak enprekin taldeko eta bazkideekin</b>	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Beste batzuk</b>	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>1.778,84</b>	<b>250,06</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>584.660,85</b>	<b>745.151,45</b>	<b>586.439,69</b>	<b>745.401,51</b>

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen xedapen gehigarrietako hirugarrenaren arabera eman beharreko informazioari dagokionez, Legea indarrean jarri zenetik egindako lehenengo urteko kontu hauetan, 2022ko abenduaren 31n, ez dago hornitzaileei ordaindu gabe dagoen eta ordaintzeko legezko epea gainditu duen geroratzea duen saldirik.

Saldo hori hornitzaileei nahiz hartzekodun komertzialei eta ordaindu beharreko bestelako kontuei dagokie.

Merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriei buruzko 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, aldatzen duen 15/2010 Legearen, uztailaren 5ekoaren, arabera Sozietateari aplikagarri zaion ordaintzeko legezko gehieneko epea 60 egunekoa da salgaia jasotzen den edo zerbitzua ematen den egunetik zenbatzen hasita.

**c) Finantza-pasiboen mugaegunen taula**

Finantza-pasiboen mugaegunaren araberrako sailkapena honako taula honetan zehaztuta dago:

	Mugaeguna urteetan						GUZTIRA
	1	2	3	4	5	5 baino gehiago	
<b>Zorrak</b>	<b>28.525,65</b>	<b>19.120,50</b>	-	-	-	-	<b>47.646,15</b>
Zorrak kreditu-erakundeekin	1.778,84	-	-	-	-	-	1.778,84
Bestelako finantza-pasiboak	26.746,81	19.120,50	-	-	-	-	45.867,31
<b>Zorrak taldeko enpresekin eta elkartuekin</b>	-	-	-	-	-	-	-
<b>Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak</b>	<b>557.914,04</b>	-	-	-	-	-	<b>557.914,04</b>
Hornitzaileak	143.519,86	-	-	-	-	-	143.519,86
Hainbat hartzekodun	413.690,50	-	-	-	-	-	413.690,50
Pertsonala	703,68	-	-	-	-	-	703,68
<b>Guztira</b>	<b>586.439,69</b>	<b>19.120,50</b>	-	-	-	-	<b>605.560,19</b>

## **9.- FUNTS PROPIOAK.-**

### **a) Izenpetutako kapitala**

2022 ekitaldia ixtean Sozietatearen kapital soziala 84.141,69 eurokoa da. Sozietatearen kapital soziala 20.000 akzio nominalek osatzen dute, 4,207984 eurokoa bakoitza, guztiak akziodun bakarrik, Donostiako Udalak, izenpetuak eta ordainduak; kide bakarreko sozietatea da, beraz.

Murrizketarik gabeko akzio-mota bakarra dago, eta enpresak ez du akzio propiorik.

### **b) Legezko erreserba**

Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren arabera, sozietateek, zergak ordaindu ondoren, mozkinen % 10 bideratu behar dute legezko erreserba eratzeraz, honek izenpetutako kapitalaren % 20 gutxienez lortu arte. Legezko erreserba hau ezin zaie akziodunei banatu eta, erabiltzeko beste erreserbarik izan ezean, galdu-irabazien kontuko saldo zordunari erantzuteko bakarrik erabili ahal izango da. Baldintza jakin batzuetan kapital soziala gehitzeko ere erabili ahal izango da. Legezko erreserbaren zenbatekoa zero eurokoa da.

### **c) Borondatezko erreserbak**

Norberaren aukerakoak dira.

**10.- EGOERA FISKALA.-**

2022ko abenduaren 31n honako hau da administrazio publikoekiko egoera:

**a) Administrazio publikoekiko saldo korrontekak**

	2022	2021
Ogasun Publikoa, BEZaren zorduna	-	-
Ogasun Publikoa, atxikipenak eta konturako ordainketak	-	-
Ogasun Publikoa, BEZaren hartzekoduna	(50.985,20)	(28.410,74)
Ogasun Publikoa, atxikipenen hartzekoduna	(94.838,09)	(90.565,46)
Ogasun Publikoa, Sozietateen gaineko Zergaren hartzekoduna	-	-
Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodunak	(53.071,95)	(40.693,82)
Gizarte Segurantzako erakundeak, zordunak	70,03	70,03
<b>Guztira</b>	<b>(198.825,21)</b>	<b>(159.599,99)</b>

**b) Geroratze zergaren ondoriozko aktiboak**

Lehen adierazitako zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak egoera-balantzean erregistratu dira, Sozietatearen administratzaileek uste dutelako, Sozietateak etorkizunean emaitza hobekak izango dituela pentsatuz, zerga-planifikazioko jarduera jakin batzuk sartuta, posible dela aktibo horiek berreskuratzea. Sozietateak ez du dirurik zerga geroratuaren aktiboen kontu-sailetan ez 2022ko ekitaldian ez 2021ekoan.

**c) Geroratze zergaren ondoriozko pasiboak**

Sozietateak ez du dirurik zerga geroratuaren pasiboen kontu-sailetan, ez 2022ko ekitaldian ez 2021ekoan.

**d) Bestelako zergak**

Bestelako zergei dagokienez ez dago egoera edo gorabehera adierazgarririk.

Zergak ezin dira behin betiko kitatutzat jo agintari fiskalek ikuskatu arte edo lau urteko derrigorrezko epea pasatu arte.

## **11.- SARRERAK ETA GASTUAK.-**

2022ko ekitaldiari dagokionez, diru-sarrerak berreskuratu egin dira aurreko urteekin alderatuta.

Izan ere, mugikortasun-murrizketak eta edukiera-muga orokorrak kendu egin dira aurreko ekitaldiko une desberdinetan. Bestalde, gastuak ere neurri berean handitu dira.

### **a) Negozio-zifraren banaketa**

Hau da negozio-zifraren zenbatekoa eta aurreko urteko negozio-zifrarekiko alderaketa:

	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Negozio-zifraren zenbateko garbia	530.067,94	250.357,61

### **b) Hornikuntzak**

Honekin batera doan 2022ko eta 2021eko ekitaldietako galdu-irabazien kontuko "Hornikuntzak" epigrafea honela osatuta dago (eurotan adierazita):

	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Salgaien kontsumoa	28.720,48	14.646,84
Izakinen aldaketa	(624,54)	37.499,00
<b>Guztira</b>	<b>28.095,94</b>	<b>52.145,84</b>

### **c) Karga sozialak**

Honekin batera doan 2022ko eta 2021eko ekitaldietako galdu-irabazien kontuko "Langile-gastuak" epigrafean sartutako karga sozialen osaketa honako hau da (eurotan adierazita):

	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Gizarte Segurantza enpresaren kontura	489.395,80	429.230,66
Pentsio-planerako ekarpenak eta bestelako karga sozialak	47.842,00	27.653,87
<b>Guztira</b>	<b>537.237,80</b>	<b>456.884,53</b>

**d) Bestelako ustiapen-gastuak**

2022ko eta 2021eko ekitaldietako "Bestelako ustiapen-gastuak" epigrafearen xehetasuna.

	eurotan	
	2022	2021
Ikerketako eta garapeneko gastuak	-	-
Errentamenduak eta kanonak	200.962,79	150.326,84
Konponketak eta kontserbazioa	99.506,77	70.532,25
Profesional independenteen zerbitzuak	232.532,39	132.776,63
Garraioak	-	25.053,12
Aseguruak	7.303,97	12.753,48
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	7.040,42	4.359,65
Publizitatea eta propaganda	677.978,30	436.280,51
Bestelako hornigaiak	14.078,16	10.009,69
Bestelako zerbitzuak	266.327,42	618.758,27
Bestelako zergak	45,34	-
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	-	-
Beste merkataritza-eragiketa batzuetarako hornidurarako zuzkidura	65.000	-
<b>Guztira</b>	<b>1.570.775,56</b>	<b>1.460.850,44</b>

**12.-HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK,-**

Hasierako saldoa	Hornidurak	Aplikazioak	Amaierako saldoa
25.000	90.000	25.000	90.000

2020ko ekitaldia ixtean, 25.000 euroko hornidura erregistratu zen, JULIA TOURS y AUTOMÓVILES LUARCA UTEk konpentsazio ekonomikoa erreklamatzegatik, Covid19aren ondorioz San Sebastián City Tour zerbitzua eteteagatik. 2022ko ekitaldiaren amaieran hornidura hori baliogabetu zen luzapen-kontratu bat formalizatzeagatik.

Horrez gain, 90.000 euroko hornidura erregistratu da, PRODUCTIONS SYSTEMS S.A.S enpresaren erreklamazioaren ondorioz. Erreklamazio horrek kalte-ordaina eskatzen du < < Wigrum>> iturri tipografikoa lizentziarik gabe erabiltzeagatik, iturri horren ustiapen-eskubideak baititu.

**13.- DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK.-**

2022ko ekitaldian Sozietateari ustiapenerako emandako diru-laguntzak guztira 294.688,41 eurokoak izan dira.

2022ko ekitaldian Sozietateari emandako kapitaleko diru-laguntzak guztira 844.000 eurokoak izan dira.

<b>Balantzean jasotako eta bazkide ez diren hirugarrenek emandako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>		
	<b>2022</b>	<b>2021</b>
<b>SALDOA EKITALDIAREN HASIERAN</b>	<b>89.965,33</b>	<b>67.028,88</b>
(+) Ekitaldian jasotakoak	844.000,00	50.000,00
(+) Epe luzerako zorrak diru-laguntza bihurtzea	-	-
(-) Ekitaldiaren emaitzetara pasatutako diru-laguntzak	(125.064,23)	(27.063,55)
(-) Itzulitako zenbatekoak	-	-
(+/-) Bestelako mugimenduak (pasiboen aldaketa zerga geroratuagatik)	-	-
<b>SALDOA EKITALDIAREN AMAIERAN</b>	<b>808.901,10</b>	<b>89.965,33</b>
<b>DIRU-LAGUNTZA BIHUR DAITEZKEEN EPE LUZERAKO ZORRAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

**14.- ELKARRI LOTUTAKO ALDEEKIN EGINDAKO ERAGIKETAK.-**

Donostiako Udalak 3.709.725,22 euroko ekarpenak egin dizkio Sozietateari 2022ko ekitaldian.

**15.- BESTELAKO INFORMAZIOA.-**

**a) Batez besteko errolda eta langile-gastuak**

2022ko ekitaldiko batez besteko enplegatu-kopurua, kategoriatan banatuta, honako hau izan da:

	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Ekitaldiko batez besteko errolda	36,52	32,47
Mugagabeko lan-kontratudun errolda ekitaldiaren amaieran	17	18

**Memoria  
2022ko abenduak 31**

Langileen gastuei buruzko xehetasunak honako hauek dira:

	<b>2022</b>	<b>2021</b>
<b>Soldatak eta lansariak</b>	<b>1.508.201,86</b>	<b>1.308.136,61</b>
<b>Kalte-ordainak</b>	<b>12.049,51</b>	<b>2.430,59</b>
<b>Karga sozialak</b>	<b>537.237,80</b>	<b>456.884,53</b>
Gizarte Segurantza	489.395,80	429.230,66
Bestelako karga sozialak	47.842,00	27.653,87
<b>Guztira</b>	<b>2.057.489,17</b>	<b>1.767.451,73</b>

Administratzaileak ez dira egon, ez modu pertsonalean ez horiei lotutako pertsonen jardueraren ondorioz, gobernu korporatiboa hobetzeko abenduaren 3ko 31/2014 Legearen bidez aldatutako Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 228. artikulutik 231. artikulura bitartean aipatzen diren Sozietatearen interes-gatazka egoeratan.

Administratzaileek ez dute bere kontura edo besteren kontura garatzen Sozietatearen xede sozialaren jardura bera, antzekoa edo osagarria, eta ez dute Sozietatearen xede sozialaren jardura bera, antzekoa edo osagarria garatzen duten beste sozietate batzuetako kapital sozialean partaidetzarik.

Sozietateko administrazio-organoei ez zaie inolako ordainsaririk, ez pizgarri finkorik edo aldizkakorik eman.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideei eta zuzendariei ez zaie aurrerakinik eta krediturik ere eman.

Sozietateak ez du berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubiderik.

Azpian izenpetzen dutenek, Sozietate honen administratzaile gisa, adierazten dute Sozietatearen urteko kontu hauei dagokien kontabilitatean ez dagoela 2012ko urriaren 8ko Justizia Ministerioaren Aginduan aurreikusitako ingurumen-informazioari buruzko aparteko dokumentuan sartu behar den kontu-sailik.

Kontu-ikuskatzaileak emandako enpresa-zerbitzuen kontzeptuengatik 2022an sortutako ordainsaria 4.400,00 eurokoa izan da.


Memoria hau Administrazio Kontseiluak aurkeztu du 2023ko martxoaren 27ko bileran.

**16.- HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

	<b>2022 egunak</b>	<b>2021 egunak</b>
<b>Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea</b>	30,66	27,34

**17.- ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK.-**

Ekitaldia itxi ondoren eta urteko kontuak onartu arte ez da gertatu 2022ko abenduaren 31ko Sozietatearen finantza-egoerak nabarmen alda zitzakeen gertaerarik.

 Eneko Goia	 Jon Markel Ormaztegui	 Berta Goromina	 David de Miguel Les	 Cristina Lavé	 Iñone Hervás
 Bixente Mirena	 Hutsune Mendiburu	 Laura Mateos	 Laura Larión	 Nerea Aramburu	 Raúl Fernández















Donostia  
San Sebastián

## URTEAREN KONTUETAKO INGURUMEN INFORMAZIOARI BURUZKO EZEZKO ADIERAZPENA

**SAN SEBASTIÁN TURISMO/ DONOSTIA TURISMOA, S.A.**

I.F.K.: A-20188884

Behean sinatzen dutenek, Sozietatearen administratzaileak diren aldetik, aditzera ematen dute urteko kontu hauei dagokien Sozietatearen kontabilitatean ez dagoela barne hartu beharreko ingurumen-arloko kontu-sailik, betiere Kontabilitate Plan Orokorraren hirugarren zatiko 5. puntuko "4. Urteko kontu laburtuak" lantze-arauari jarraiki (1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa).

 Eneko Gola	 Jon Markel Ormazabal	 Borja Corominas	 David de Miguel Les	 Cristina Lagé	 Jaiots Hervás
 Bixente Mirena	 Hutsune Mendiburu	 Laura Mateos	 Laura Larión	 Nerea Aramburu	 Raúl Fernández